

# ARTXIPI-KO UNATZ, IULIUS KAESARREN ZENTURIOIAREN ISTORIOA

KARLOS ZABALA OIARZABAL

«**E**TOZ attona, etoz sutondora eta kontaiguzu ipui bat!».

Bozkarioz utzi zuen aitonak ezkurak zehatzeko lan aspergarria suaren bero gozoan zeuden umeetara biltzeko; arratsaldero aritzen zen harrizko almaitzan hazi ttipiak ehortzen eta zenbait ordu zeramalarik edozein aitzaki zitzaion baliagarri betebeharrak ahaztu eta lasai pausatzeko. Kristo aurreko I. gizaldiaren iluntsenti gorri hartan arduraz gorde zuen agureak hirin zuria eta geldiduz sutzarrera hurbildu zen, txakurra lagun zuela.

«Entzun haurtxok, erne entzun ezazue! Nigandik ikasi dituzuen beste kontuak ez bezala, gertakari miragarri hauek ez ditut neronek asmatu eta ez inork neri kontatu ere.

Erromatarrek hona etorri ziren garaian suertatu zen. Eta ez hemen, baizik urrun, bospasei egunetako bidearen buruan aurkitzen ahal diren baso hostotsuetan, itsasoak lamikatutako alderdi zoragarri batean, OIASO deritzan tokian, Aizgibel, Aiako harria, Urdaburu mendi tontorrek inguratzen duten ibar ugarian, Bidasoa eta Urumea izeneko ibaiek mugaturiko lur oparoetan.

Han jaio eta bizi ginen gu, eta han jaio eta bizi zen Ugatz.

Artxiipi muinoan sortu zen mundura. Haur txiki bat besterik ez zelarik ezbehar triste bat zela eta, bakarrik gelditu eta gurgana etorri behar izan zuen orduz geroz senide izango genuenak.

Behin batez... belardian etzanda, arrano beltzaren hegaldidastitsuari adi adi jarraitzen zitzaionean, itsasaldetik oihu bat iritsi zen, begiratu eta itsas piztirik izugarriena, uretako herensugea, ikusi uste zuen, ehundaka zituen besoak eta hego handi bakar bat; gero, hurbildu ahala, gizonak antzeman zituen eta agian etxe bat izango zela gogoratu zitzaion, zurezkoa baitzirudien. Harritua zegoen, eta are harrituagoa etxe, pizti edo zena zela hartatik gezi bat atera eta arrano beltza sasiaren artera zauriturik erori zenean. Eskuetan odolez gorritutako hegatzia zeramala sartu zen etxean. Hitz totelka, ahal izan

zuen moduan jakinean jarri gintuen eta denok korrika abiatu ginen gauza lazgarri hura omen zegoen lekura, denok Unatz ezik, arranoa sendatzen gelditu baitzen. Etxera itzuli ginean beldu ginen; lantzak, geziak, aizkorak zorrozteari ekin genion, arkuak tenkatzeari. Baina berehala konturatu ginen atzeritarrak ez zetozeela burruka asmoz, eta harremanetan hasi ginen. Horrela, Erroma zelako herri batekoak zirela jakin genuen.

Ahal zen neurrian bizitza normala generaman; erromatarrek noizik behin kostaldean eraikitako kanpamendutik ateratzen ziren, batzuetan ehizan, besteetan mendiko kobazuloen eta ibaiko harrien azterketan. Hasieran kontu hartzen genien, baina azkenean ohitu ginen haien ibileretara, eta Unatz-ek soilik segitzen zituen soldaduen mugimenduak begirada jakinguratsuaz.

Bitartean arranoa sendatu zen eta gure mutila Aiako harrira igo zuen, handik aske hegaz egin zezan; lokarria laxatu eta biraka hasi zen altxatzen, leunkiro, beti gora, gero eta gorago, baina bat batean, amiltzen hasi zen, bertan behera zetorren, haitz gogorren kontra joko zuen... halere, azkeneko unean desbiratu eta hariztiaren itzaletan zegoen gizon erraldoiaren sorbalda pausatu zen. Larrubizirik zegoen, belaunetarainoko ilajeaz estalirik. Basajauna zen. Eskuan zeukan makila Unatzenganantz zuzendu zuen esanez:

— Eskerrik asko, lagun! Nere arranoa sendatu duk, mesedea zor diat; inoiz behar banauk deiezadak eta etorriko nauk. Agur!

Eta oihanean galdu egin zen. Unatz zur eta lur gelditu zen. Ezin zezakeen sinets, eta ez guk ere kontatu zigunean.

Hilabete batzuk igaro ziren eta goiz urdineko egun batean, inori tutik esan gabe, Unatzek alde egin zuen. Hasieran mendian barrena ibiliko zelakoa geunden, animaliei begira edo, baina ez zetorrela, ez zetorrela eta azkenean egia jakin genuen: egun hartan erdi eraikitako erromatar kaitik abiatu zen itsasontzian ikusi zuten gure lagun jatorra; erromatarren lurretara joana zen, beraz.

Orduen, asteen, urteen iragatze geldiarekin batera, haren oroitzenak gero eta zirriborrotsuagoa irauten zuen gure gogoan. Baina goiz urdineko beste egun batean itzuli zen. Erromatar zenturioiz jantzita azaldu zen etxe atarian; itxura haren azpian gure Unatz asmatzea ez zen erreza. Nahiz eta denok bihotzez poztu, deus ere ezin zen gure arrebaren alaitasunarekin alderatu, eta berehala jabetu ez baginen ere, alaitasun bera bide zegoen Unatzegan ere.

Erromatarren alde guda askotan ibilia eta irabazlea zen; berriaz OIASOra nagusiek gomendatutako eginbeharrak beharturik etorri zen, batik batik. Unatzen manupean behingoan hasi ziren lanean, zuloak egiten eta ibaitik harriak ateratzen. Urre bila omen zebiltzan eta zerbait aurkitu omen zuten, zeren ibaiko lurrak iraultzeari, biziki erauzteari eman zioten segituan.

Lanak uzten zizkion aise tarte laburrak gure arrebarekin iragazten zituen. Denok ikusten genituen ezkontzeko bidean.

Goiz batez, aurreko egunean ibaitik ateratako lurrak uretan zirela ikusi zuten han ihardutzen ziren esklabu harrituek. Eta hurrengo egunean ere. Eta hurrengoan. Unatzek guardian soldadu gehiago ipini bazituen ere, alferrik!, egunez egina, gauz desegiten zen. Azkenik, lurrak urbazterretan laga beharrean, itsasora botatzea gogoratu zitzaion, eta horrela egin zuten. Gau hartan, ohean ginelarik, norbait atean joka eta gure arrebari deika sumatu genuen, atera ginen eta itzal artetik basajaunaren irudia ikusi genuen. Arrebari berriaz deitu, besotik heldu eta agudo urrutiratu ziren.

Unatzek jakin zuenean sutan jarri zen, bai bere maitearen bahiketagatik, bai lurrak ibaira bihurtzen zituena basajauna zela ulertu zuelako. Edozein gauza egiteko prest, aztarnaren atzetik abiatu zen. Oinatze haitzulo batera eraman zuten; han zegoen neskatxa eta basajauna aurki itzuliko baitzen, salbatzeko zer egin behar zuen esaten hasi zitzaion zenturioi euskaldunari, hots, herensugea hil behar zuela, honengandik zera aterako zela... baina, orduan, basajaunaren urratsak adi-

tu zituzten eta mutila ezkutatu aurretik basajaunari bi arraultz boteaz hilko zela entzun ahal izan zuen.

Lehenbizi herensugea akabatzea zenez gero, haren bila joan zen, eta aurkitu zuenean, suzko gezi batez baliatuz hartz gaitz bat uxatu zuen piztia izugarriaren aterberuntz; burruka latzean hartza nagusitu zen. Ezpata zorrotzez herensugea ireki eta erbi bat ziztu bizian aldendu zen; korrika etorri zen Unatz nigana eta hemen dagoen txakurraren aita eskatu zidan; harek ehizatu zion erbia; hau ireki zuenean uso bat alxtatu zen; ezintasunez begira ari zitzaiolatik zerbait bururatu zitzaion, basajaunarengana aurkeztu zen, mesede zor ziola oroitarazi eta arranoa uzteko esan zion. Basajaunak, amorruez betea, eskaria onartu behar izan zuen. Arrano beltzak usoa harrapatu zuen eta azkenik, hau irekirik bi arraultzak eskuratu zituen. Haitzulo aldera joan eta han zuhaitz baten azpian bere neskatxa basajaunari orrazten ari zitzaiola ikusi zuen; atzetik hurbildu, zuhaitzera igo eta goitik arraultzak bota zizkion, baina batek bakarrik jo zuen eta hil beharrean gorroto karraxi lazgarri artean itsu geratu zen basajauna.

Unatz eta gure arreba, eskutik oraturik, laster kaira iritsi ziren, han untziratu, itsasora atera eta urrutzen hasi ziren. Basajauna, anartean, Aiako harrira igo eta arranoa bere oihuez itsasontzia non zegoen erakuts ziezaion bidali zuen; hegatzia zeinek sendatu zuen oroituz, ez zen barkuaren gainean gelditu, baizik kostaldean; basajaunak, Unatz zapaldu nahiean, bi haitz eskerge bota zituen, arranoaren deihadarrek gidatuta, baina gaur egun ere ikus daitezkeen bi haitz biki horiek itsasertzean erori ziren, betikoz aldentzen zen itsasontzitik urrun. Honez geroztik inoiz ez dugu Artxipiko Unatzen berririk izan, eta ez arrebarenik ere, jakina!».

Agureak istorioa bukatu zuenean, jeiki eta mantso mantso iluntasunean murgildu zen. Ilobak, su inguruan, ixil ixilik geratu ziren, norbaitek xarma urratu zuen arte.

«Goazen lotara!».

